



OLPak INGURUMENAREKIKO

DUEN KONPROMISOA

2022-2023 IKASTURTEA



OLP-ak gure **Eginkizunean...**

*“Kutsadura ahal den neurrian ekidituz ingurumenarekiko jarrera hobetzeko konpromisoa” hartzen dugu eta gure **Balioen** artean “Errespetua pertsona, ingurumena, instalakuntza eta bitarteko orori, tentsio eta gatazkak elkarrizketa bidez eta indarkeriarik gabe konpontzeko jarrera azaltzea” dugu.*

INGURUMEN ALDERDI ADIERAZGARRIAK:

- Ingurumen kudeaketak gure kudeaketa bateratuan duen garrantzia kontutan hartuta, ikasle eta langileen asebetetzea areagotzeko egiten diren ekintzak eta bere hedapena helburu estrategiko bihurtu dugu:
 - Lehengaien kontsumoaren murrizketa bultzatuz (ura, fotokopiak, elektrizitatea, tailerreko lehengaiak..).
 - Hondakinen kudeaketa hobetuz.
 - Oteitzako pertsonen mugikortasunaren (ikastolara iristeko) azterketa bideratuz.
 - Kurtsoan zehar ikasleekin ekintza ezberdinak gauzatuz.
 - IKasgaietan ingurumenaren inguruko gaiak landuz.

IKASTURTEKO HELBURUAK LORTZEKO EKINTZAK:

- Talde Berdea martxan jarri eta eraginkor mantendu: Agenda 2030eko kideen eskutatik bideratu.
- Solairu bakoitzeko pasilloetan, zabor desberdinak bildu eta bereizteko txokoak aurkeztu.
- Lizeoko auzokideekin (Donibane plaza, Gaztelekua, jabego pribatuak..) ditugun harremanak zaindu, beren inguruak errespetatuz.
- Ikasturte honetan Eskola Agenda 2030ean garatu beharreko gaia azaldu eta ingurumen taldean parte hartzeko gonbidapena luzatu.
- EA 2030eko gaia: Batxilergoan “Energia, bizitzaren motorra (7. GJH)” izango da abian jarriko den Garapen Jasangarrirako Helburua (GJH). Lanbide heziketan aldiz, “Ekonomia zirkularra (12. GJH).
- Ikastetxean ingurumenari lotutako ekintza /egun ezberdinak antolatu.
- Ikastetxean egiten diren ekintzetan ingurumena kontuan izateko hainbat irizpide ezartzea.

Ingurumen taldeko KIDEEN BETEBEHARRAK:

- EA 2030eko gaia landu: Batxilergoan “Energia, bizitzaren motorra (7. GJH)” izango da abian jarriko den Garapen Jasangarrirako Helburua (GJH). Lanbide heziketan aldiz, “Ekonomia zirkularra (12. GJH)”.
- Arazoen aurrean, aztertu eta denen artean hobetzen joateko irtenbideak aurkituko dituzte.
- Ingurumen gaiaren inguruan sortutako ekintzak bultzatuko dituzte.

INGURUMEN JARDUNBIDEAK:

Ingurumen jardunbide egoki eta energia kontsumoa murrizteko jarraitu beharreko ekintza txiki batzuk adierazi nahi dizkizuegu.

Kontsumoa murriztu:

- Alferrikako hondakinak sorrarazten dituen edozer saihestu.
- Energia: makinak ez alferrik martxan eduki. Berogailuak piztuta daudenan leiho eta atea ez alferrik irekita mantendu.
- Ura: ez galdu alferrik eta ez erabili komunak paperontzi gisa.
- Papera: ordenagailuak erabili dokumentuak irakurtzeko eta eskanerra erabili paperezko fotokopiak egin beharrenean. Ahal den neurrian, dokumentazioa formatu digitalean artxibatu.

INGURUMEN JARDUNBIDEAK:

Berrerabili:

- Objektuak eta materialak ahalik eta gehien erabili, baztertu, suntsitu edo tratatzera bidali aurretik. Geletan erabilitako papera pilatu eta berrerabiltzeko kaxak jarriko dira.

Birziklatu:

- Materialak behar bezala sailkatuta utzi, produktu bera edo beste bat lortzeko baliabide material gutxiago erabiltzen duen prozesu natural edo industrial baten bidez berrerabiliak izan daitezten. Geletan eta pasiloetan hondakin mota desberdinak jasotzeko ontziak izango dituzue.

Isurketak:

- Zarataren sorrera murriztu, sortu aurretik komunikatuz, bere eragina ahal den neurrian ekidin ahal izateko.
- Oteitzako kideen mugikortasun jasangarriago bat bultzatu behar dugu.



INGURUMENA ZAINDU DEZAGUN!